

38 » Hadopi legeari justiziaren esku-sartzea jasotzen duen osagarria gehitu diote ministroek

40 » Korrontzi, Llan de Cubel eta Cristina Pato izango dira Mendebala jaialdiko talde nagusiak

‘Zigortzaileak’ haurrentzako lana filmatzen hasiko dira astelehenean

Arantza Ibarra eta Alfonso Arandiak zuzenduko dute ‘bullying’-a ukituko duen filma

Ekaitz Goienetxea Portugalete

Pozik eta gogotsu agertu dira zazpi haur prentsaren aurrera. Pozik, batetik, eskolako azterketak bukatu dituztelako, eta bestetik, zinema egiten hasiko direla astelehenetik abuztuaren 8ra arte. Ume horiei bost axola zaie aurten udako oporrak laburragoak eta lanpetuagoak izatea. Batzuek menderatzaileen rola jokatuko dute, besteek, menpeko-tasunetik askatzeko talde bat osatuko dute: *zigortzaileena*. Arantza Ibarra idatzi duen eta Alfonso Arandiarekin batera zuzenduko duen filmeko protagonistak dira zazpi umeok.

Portugaleten (Bizkaia) filmatuko dute haurrei zuzenduriko *Zigortzaileak* filma, hango institutuan eta ingurueta. «Bila ibili ginen Bizkaiko ikastetxeetan, eta, Portugaleteko institutuak eta eskolak biekin jokatzea ahalbidetzen ziguten, gutxi gorabehera gidoian markatuta genuena egiteko», gidoilariaren esanetan.

Dena ondo bidean, sei asteko filmaketa lanak buruturik, dato-ren urte hasieran estreinatuko

dute filma aretoetan, Jose Maria Larak ekoiztuta, EITBren parte-hartzearekin eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta, zehaztu nahi izan ez duten arren, «aurrekontu txikiarekin».

Zazpi, 1.200 haurren artetik

Filma tematikoa ez bada ere, zeharka eskolako jazarpenaren gaia ukituko du, ikasgairik eman gabe: «Gai nagusia ez da *bullying*, baizik eta haurrek nola osatzen duten superheroien taldetxo bat. Ez dira Superman, ezin dutelako hegan egin, baina, bakoitzak badu bere ezaugarria: batek kung-fu egitea, besteak ondo dantzatzea eta hirugarrenak ordenagailuekin ondo moldatzea...».



Batez ere komedia da; modu entretenigarria, gaztetxoek ondo pasatzeko»

ARANTZA IBARRA
Gidoilari eta zuzendaria

Guztira, 1.200 neska-mutilek hartu dute parte hautaprobetan, eta azkenean sei bizkaitar eta lapurtar bat aukeratu dituzte: Amaia Aberasturi, Andoni Delarigne eta Estibaliz Sarasola izango dira *Zigortzaileak*, eta menderatzaileak, Martin Gandiaga, Peio Madariaga, Asier Vegas eta



Filmeko protagonistak, atzo, Portugaleteko zubi esekiaren alboan. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Nikola Zalduegi. «Iparraldeko doinua» ere sartu nahi du Ondarruko (Bizkaia) zuzendariak filmean, ahoskerak hori jazarpenera aitzakia bihurtuz. Azkenean bat egingo dute jazarturiko haurrek adarjotzaile guztien aurka: «Haurrek egin behar dutena da batu, beraien artean, eta ez isolatu. Hori da mezu». Filmean, Leo baztertu egingo dute beste mutilek, eta, neskekin bat egitean, in-

dartsuago sentituko da. Zuzendarriaren arabera, filma lagungarri izan daiteke gurasoek eta seme-alabek gaiari buruz naturaltasunez hitzegiteko: «Modu entretenigarri bat da, gaztetxoek ondo pasatzeko. Batez ere komedia da, nahiz eta atzean *bullying*-aren gaia egon».

Umeez gain, helduak ere badira, noski, filmean: Loli Astorak antzeztuko du Lurdes irakas-

learen rola: «Banda hau maneitzea tokatu zait niri. Buruko mina ematen didate, baina, haurrek baino gehiago, beraien gurasoek». Komedia muturrerago eroango dute aita-amekin, haurren begirada bereziarekin jolas-tuz. Gurasoena egingo dutenen artean, izen ezagun batzuk ere badira: Anne Igartiburu, Carlos Sobera, Gurutze Beitia eta Rafael Amargo, besteak beste.

Hamar izango dira film onenaren Oscar sarirako hautagaiak

Hollywoodeko Akademiak azken sei hamarkadetako ohitura aldatu du, eta «sustrieta» itzuli da

Agentziak Los Angeles

Hurrengo urtean film onenaren Oscarsarirako hautagaiak ezdira bost izango, azken 65 urteetan gertatu den bezala, hamar baizik. Erabaki horrekin «sustrieta»

itzuli nahi du Hollywoodeko Akademiak, Sid Ganis presidenteak adierazi duenez.


Akademiaren lehen garaian irekia zen film onenaren Oscar saria jasotzeko hautagai kopurua —batzuetan zortzi eta beste batzuetan hamabi izan ziren—, baina 1936tik 1943ra hamarrera mugatu zuen. Geroztik, bost izan dira. Erabaki honekin «urteko saririk garrantzitsuena» jasotzeko lehiatik kanpo geratzen diren hainbat filmen bikaintasuna aitortu nahi du Akademiak.

Kioskoa > harpidedunentzat **SARRERAK**

Aukera ezazu.
berria

Atera etekinak Berriaren harpidetzari!

berriak gonbidatzen zaitu:
harpidedunentzat **18 sarrera** ditugu



PIRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS

‘PIRATAK’

**KURSAAL KONGRESU JAUREGIA
DONOSTIA
Ekainak 27, larunbata
11:00**

SARIDUNAK:

Zubeldia Izagirre, Idoia (Irun)
Arrizabalaga Pikabea, Idoia (Lezo)
Ezama Eizmendi, Marijo (Errezil)

Irazustabarrena Iturrioz, Olatz (Alegia)
Ilarramendi Zubimendi, Mikel (Azkoitia)
Ezeiza Iruz, Luis Mari (Errenteria)

Sarrerak leihatilan. Saridun bakoitzari HIRUNA sarrera dagozkie.
Harpidedun txartela aurkeztu beharra dago ziurtagiri moduan.

ANTOLATZAILEA:



HARPIDETZA SAILA:
Martin Ugalde kultur parkea, z/g - Andoain
Tel.: 943-30 43 45 • kioskoa@berria.info